



Azpeitiko Udala

MARIA OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, Azpeitiko Udaleko idazkaria.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatzak bi mila hogeita bateko abenduaren bian egindako bilkuran honako hau dioen akordioa hartu zuen:

HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA ONARTZEA

Aurrekariak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa den otsailaren 21eko 4/2019 Legeak energia-politikaren joera orokorra kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eta sektore pribatuan jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezarri, eta batzuek eta besteek zer eginbehar eta betebehar dituzten antolatzen du. Batez ere, energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak bultzatzera bideratuko dira eginbehar eta betebehar horiek, bai eta energi berriztagarriak susatzera eta ezartzera ere.

Legearen 24. artikulua 5.000 biztaletik gorako udalerriek **hiri-mugikortasuneko plan bat** onartu beharko dutela arautzen du, atal hauek jasoko dituenak:

a) 1. zatia. **Diagnosticoa**; alderdi hauek jaso behar dira:

– Lurralde- eta hirigintza-ereduak mugikortasunean duen eragina eta, orokorrean, garraioan duena.

– Udalerrian dauden garraio-moduak, eta energiaren erabilera duten eragina. Diagnostiko horretan, besteak beste, hauek adierazi behar dira: garraiobideak, edukierak, mugikortasun ez-motorizaturako ibilbide estrategikoak, ibilgailu mota bakoitzerako aparkatzeko lekuak, erregaiak kargatzeko sistema publikoak eta jende gehien biltzen duten ekonomia, lan edo zerbitzuetako jarduera-zentroak.

b) 2. zatia. **Neurriak**; alderdi hauek izan behar ditu:

– Ordezko erregaien karga-puntuak eta ordezko erregaiez hornitzeko guneak jartzea jendearen eskura.

– Garraio publikoa sustatzea.

– Erabilera partekatuko ibilgailuak (car-sharing delakoa) sustatzea.

– Garraio pribatua pixkanaka gutxituz joateko ordezko beste aukera batzuk ematea.

– Salgaiak banatzeko logistika hobetzea.

– Bizikleten erabilera eta, oro har, joan-etorri ez-motorizatuak bultzatzea.

– Oinezkoentzako bakarrik diren eremu gehiago jartzea.

– Ordezko erregaiak darabiltzaten ibilgailuak erabil daitezen sustatzea.

Planean argi eta garbi azaldu behar da zer helburu lortu nahi diren, plana egin duen administrazioak zer inbertsio hitzeman dituen, zein diren urteko jarraipen-adierazleak eta zenbat denboratan gauzatzea aurreikusi den, eta 4/2005 Legearen 46. artikuluan ezarritakoa bete beharko du. Plana eta plana egiteko beharrezkoak diren azterketak gizonak eta emakumeak hiriari eta espazioari ematen dioten erabilera desberdi-

nak kontuan hartuta idatzi behar dira, eta generoen artean egon daitezkeen aldeak gutxitzeko proposamenak jaso behar dira, hiri integratzailea eta erantzunkidea lor dadin aurrerera egiteko.

Udalak 2020ko azaroaren 19an Azpeitiko Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana Idazteko kontratazio espedientea onartu zuen, eta dagokion tramitazioa eman ondoren INGENIERIA DE TRAFICO SL enpresa kontratatu zen plana idazteko.

Azken hilabete hauetan plana osatu da eta bere formulazioan agente interesatuen parte-hartze prozesua eman da. Orain, legeak ezarritako prozedura jarraitu eta planari haserako onespena emango zaio. Ondoren akordioa eta planaren edukina herritarrei jakinaraziko zaie hauen parte-hartzea bermatuz. Horretarako dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 45 egunetan, eta dokumentuaren eduki aUdalaren web orrian argitaratuko da, parte-hartze prozesu batekin. Hain zuzen, web orriaren bidez herritarrek aukera izango dute beren iradokizunak edota alegazioak aurkezteko, eta horiek behar bezala ebaluatuko dira dokumentuari behin betiko onarpena ematerako. Hasierako onespena eman ondoren, planari aldaketa asko egiten bazaizkio, berriz jarri beharko da jendaurrean.

Eta kontuan izanik aldekoa dela Ingurumen alorreko Batzordeak emandako irizpena Udalbatzako kideek aho batez, eta beti ere legezko kopuruaren gehiengoarekin honako hau dioen akordioa hartu du:

Lehen.- Azpeitiko Hiri Mugikortasun Jasangarrirako planari **HASIERAKO** onarpena ematea.

Planak honako atal orokorrak jaso ditu hainbat plano eta dokumentu osagarriekin, eta modu berean espedientean jaso da plana egiteko eman den parte-hartze prozesua:

- Diagnostikoa
- Ekintza Plana

Bigarrena.- Akordio hau eta planaren edukina bera jendaurrean jarriko da erakusgai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian, eta herritarrek 45 eguneko epealdian beren iradokizun eta alegazioak aurkezteko aukera izango dute.

Epe hori igarotakoan, planaren bidez lortutako emaitzak ebaluatuko dira eta Udalbatzak dagokion akordioa hartuko du.

Eta horrela jasoak gera dadin eta, alkate udalburuaren on iritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita bateko abenduaren hogieta zortzian.

O.E.
ALKATEA,

